

BIZITEGI-ERAIKINETAKO EGITURA-ELEMENTUAK KONPONTZEKO
DIRULAGUNTZETARAKO DEIALDIA - 2023

AURKIBIDEA / EDUKIA

1. ARTIKULUA. XEDEA	3
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA	3
3. ARTIKULUA. ERAIKINAK: Bete behar dituzten baldintzak	3
4. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Nork eska dezakeen dirulaguntza	4
5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Betebeharrak	4
6. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA	4
7. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA	4
8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK	6
9. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN OBREK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK	6
10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN	6
11. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.	7
12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkezteko modua eta epeak	8
13. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA	8
14. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ORDAINKETA	9
15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA	9

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailak bere egitekoen artean du, besteak beste, titularitate pribatuko eraikinak behar bezala artatuta daudela zaintzea segurtasunaren, osasungarritasunaren eta apainduraren arloan, hirigintzari buruzko legerian aurreikusitako baldintzen arabera.

Sarritan, eraikinen antzinatasunaren ondorioz, eraikinei eusteko egituraren kalteak atzematen dira. Kalte horiek konpontzea oso garestia izaten da, lanen zailtasunagatik eta patologia-motagatik, batzuetan eraikin osoari eragiten baitiete.

Kalteen jatorria era askotakoa da: eraikinaren zimenduetan gerora gertatutako akatsak izan daitezke; eraikin akastuna izatea, materialen kalitate eskasagatik edo proiektuak akatsak egoteagatik behar bezala egin ez zelako; mantentze-lan egokiak ez egitearen ondorioz agertutakoak (hezetasunak, etab.).

Horrelako patologiak are eta larriagoak izan daitezke oso zaila delako goiz antzematea, eraikinen egitura ezkutuan egoten delako eta kalteak ez direlako agerian geratzen akaberetan edo itxituretan beste patologia batzuk eragin arte.

Eraikinaren elementu komunetako egituraren zati direnez gero, horien konponketa, oro har, jabeen erkidegoari dagokio. Hala ere, forjaketa-elementuak (egoera txarrean dauden habexkak, adibidez) aldatu beharra dagoen kasu batzuetan, kaltetutako etxebizitzaren edo lokalaren jabetzak egiten du konponketa.

Laguntza hauek bizitegi-eraikinetan gauzatutako jardunetarako dira soilik, eta, hala, laguntzen xedea da partikularrei obrak finantzatzen laguntzea, aparteko gastu handiak ekarri ohi dituztelako, haien etxebizitzetan eragina duelako eta, lesioen ezaugarriak eta segurtasunean duten eragina kontuan hartuta, ezin direlako atzeratu edo geroratu. Presazkoak eta garestiak izan ohi dira.

Aurreko urteetan bezala, dirulaguntza berezi batzuk jasotzen dira higiezinaren egiturari kaltea eragin ahal dien termitei ondoriozko patologien kasuetarako. Kasu horietan, izurriteak oro hartzen duelako, beharrezkoa izaten da lan bereziak egitea hainbat higiezinetan, eta, hori dela eta, aldi bereko tratamenduak edo esku-hartzeak behar izatea higiezin horietan guztietan. Esku-hartze horiek sustatzeko, hainbat jabeen erkidegoren arteko adostasuna behar izaten baita, dirulaguntzak emango dira kata, tratamendu kimiko, esku-hatze arkitektoniko eta mantentze-neurrien bidez egin beharrekoak diren azterlanetarako.

Gainera, termitei eta beste intsektu batzuen ondorioz horrela jardun beharra dagoenean, kasurik gehienetan eraikuntza-elementuei eragiten zaie, eta, nahiz eta ez izan erabat egiturazkoak, kendu egin behar izaten dira izurritea erabat ezabatzeko; hori dela eta, dirulaguntzak emango dira kaltetutako zurezko eraikuntza-elementu ez-egiturazko horietarako.

Bestetik, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, batez ere bizitegi-erabilerakoak diren eraikinak unean-unean eskatutako kalitate-eskakizunei egokitzen zaizkiela egiaztatzeko, teknikari eskudunek behar beste ikuskapen tekniko egin beharko dituzte, eta arauz zehaztutako antzinatasuna duten bizitegi-higiezinetakako jabeen erkidegoek Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EAT) eginn beharko dute.

Beste alde batetik, Higiezinak Zaintzeko, Konpontzeko eta Zaharberritzeko Ordenantzaren 4. xedapen gehigarriak ezartzen du, indarreko arautegiarekin bat etorriz, eraikinaren jabeak kontserbaziorako, irisgarritasunerako edo eraginkortasun energetikorako dirulaguntza eskatzen dionean administrazioari, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa aurkeztu beharko duela, Ordenantza horren III. Kapituluan eraikinen ikuskapen teknikoari buruz ezarritakoa betez.

Horren ondorioz, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena aurkeztu beharko da, eraikinaren antzinatasuna zein den kontuan hartu gabe. Hartara, eraikin horietako

egiturazko elementuen egoera hobetzeko Udalak emandako laguntzaren ordaina izango da onuradunak berak artapenerako zein zaharberrikuntzarako lehenengo neurri hori betetzea.

1. ARTIKULUA. XEDEA

Deialdi honen xedea dirulaguntzak ematea da, hauek finantzatzeko:

- **1. mota.- Egiturazko eraberritzeak:** bizitegi-erabilerako eraikinetako egiturazko elementuak konpontzeko obrak.
- **2. mota.- Termitek eta beste intsektu batzuek kaltetutako eraikinak:** Termiten eta eraikinari zein inguruneari eragiten dieten izurriteak desagerrarazteko lanak.

Deialdi hau ezartzeko eremu geografikoa Bilboko udal-mugarte osoa izango da, Surbisak kudeatzen duen eremua izan ezik (Zapi Kaleak, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Gurutze auzoa, Olabeaga, Zazpilanda, Iralako eremu hondatuak eta Irala historikoa), bertan laguntza-programa bereziak daude-eta.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen menpe daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorra, eta lege hori garatzeko uztailaren 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsitako Erregelamendua; eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak, Udalbatzaren 2016ko ekainaren ordenantza orokorraren bidez onetsiak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko uztailaren alean (138. zenbakian)—.

3 ARTIKULUA. ERAIKINAK: Bete behar dituzten baldintzak

- Eraikinaren erabilera nagusia bizitzekoa izatea.
- Bizitzeko ez diren erabilerak daudenean, erabilera horiek, gehienez jota eraikitako azaleraren % 50 izango dira; ez dira kontuan hartuko behetxeak eta sotoak, horrelakorik egonez gero.
- **Eraikinen Ikuskapen Teknikoa.** Eraikinaren antzinatasuna edozein dela ere, laguntza eskatu aurretik, Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Txostena aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzak EITak kudeatzeko eta erregistratzeko gaitutako plataformaren bidez. Hau da bertara sartzeko esteka: <https://www.euskadi.eus/euskoregite>

4. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Nork eska dezakeen dirulaguntza

1.- Jarduketa egiten duten bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeek eskatu ahal izango dute dirulaguntza, baita jabeen erkidegoek ere, elementuak bateratuak direnean. Azken horiek euren ekimenez edo udalak berak eskatuta jardun ahal izango dute.

2.- Era berean, ezinbestekak eraginda, hala nola eurijasa handiek, lur-jausiek, suteek eta abarrek, Udalak erabakitzen badu presaz jardutea ordezeko obrak eginaraziz, kasu horretan ere jaso ahal izango dira dirulaguntza hauek, beti ere jardun horien aurretik ez bada egon Udalaren eginarazte-agindurik jabeek bete gabe utzia.

3.- Ezingo dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako debekuren bat dutenak.

5. ARTIKULUA. ONURADUNAK: Betebeharrak

Dirulaguntzen onuradunek Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunak egiaztatu behar du ez daukala zorrik zergen arloan eta Gizarte Segurantzari.

6. ARTIKULUA. AURREKONTU-ZUZKIDURA

1.- Deialdiko dirulaguntzak Bilboko Udalak 2023ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 41020 15220 78099 PEP 2023/00342 aurrekontu-partidaren kontura finantzatzeko dira.

2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HIRUROGEITA HAMABOST MILA (75.000 €) EUROKOA da.

3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, ez da laguntza gehiago emango harik eta aurrekontuan beste diru-zuzkidura bat baimendu arte; Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da, hala gertatuz gero.

4.- Aurrekontu-zuzkidura handitu ahalko da, aurkeztutako eskabideak ikusita, deialdi berririk egin barik.

7. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUKETAK, ETA LAGUNTZA EKONOMIKOEN ZENBATEKOA

1. mota.- Egiturazko eraberritzeak:

Dirulaguntza ehuneko hogeita bosteko (% 25) itzuli beharrik gabeko dirulaguntza izango da, bizitegi-erabilerako eraikinei lotutako egiturazko elementuak konpontzeko obretarako, forjatuei, karga-hormei, portikoei eta zimenduei eragiten badiete.

Barruan sartzen dira kalteak dituzten egiturazko elementuak konpontzea, elementu sostengatzailea, forjatua, ataria eta abarrak erabat konpondu arte.

Alabaina, ez dira diruz laguntzekoak izango egiturazko konponketa bera egin baino lehenagoko prebentziorako neurri osagarriak (behin-behineko zurkaiztea, esaterako).

Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, higiezinaren inguratzailan egindako esku-hartzeak, lur-jausiak, kaskoteak edo erlaitzak erortzeko arriskua saihesteko, baldin eta Udalak emandako edo eskatutako neurrien ondorioz gauzatu badira.

Era berean, diruz lagundu ahal izango da egoera txarrean dauden eta zolataren azpian lurperatuta dauden euri-uren eta ur beltzen eroanbide horizontalen instalazioak konpontzea.

Nolanahi ere, dirulaguntzatik kanpo geratzen dira kontserbazio- eta apaindura-baldintza egokiak lortzeko ordeztu behar diren akaberak berritzeko lanak.

Diruz lagundu daitekeen jarduketaren gutxieneko aurrekontua hiru mila (3.000) eurokoa izango da.

Laguntzaren gehienezko zenbatekoa zortzi mila (8.000) eurokoa izango da eraikin bakoitzeko.

2. mota.- Termiten kaltetutako eraikinak:

2.1.- Jarduketaren helburua termiten izurriteak desagerraraztea eta kaltetutako higiezinak konpontzeko obrak egitea bada, termiten aurkako tratamenduaren eta obren kostuaren ehuneko berrogeita hamarreko (% 50) dirulaguntza emango da, itzuli beharrik izan gabe.

Laguntza hori, gehienez, hogeita bost mila eurokoa (25.000 €) izango da eraikin bakoitzeko.

Eraikinaren egituraren egoera zein den jakiteko lanak egin behar izan direnean (katak irekitzea) eta termiten aurkako tratamendua hasi denean, laguntza ekonomiko horien ordainketa partzial bakarra eskatu ahal izango da.

Laguntza ekonomikoa, fase horretan, itzuli beharrik gabeko dirulaguntza bat izango da, lan horien eta dagozkien ordainsari teknikoaren egiazko kostuaren ehuneko berrogeita hamarrekoa (% 50), eta, gehienez ere, hamabi mila eta bostehun euro ordainduko dira (12.500).

Ordainketa partzial hori dirulaguntzaren zenbateko osoaren kontura ordainduko da, alegia, obren eta ordainsari teknikoaren behin betiko likidazioaren arabera dagokiokeen dirulaguntzaren zenbateko osoaren kontura.

Termiten aurka zenbait urtetan zehar egin behar diren tratamenduen kasuan, urtero eskatu ahal izango da tratamendu horren mantentze-lanen ordainketa, 2. zenbaki honetan ezarritako mugekin.

2.2.- Eraikuntza-elementuak konpondu beharraren ondorioz edo katak irekitzearen ondorioz akaberak ordeztu behar izan badira, laguntza ekonomikoa egiazko kostuaren ehuneko berrogeita hamar izango da (% 50).

Laguntza hori, gehienez, bost mila eurokoa (5.000) izango da eraikineko.

2.3.- Finka-administratzaileen zerbitzu profesionalak kontratatatzeko laguntza ekonomikoa urtebeteko ordainsari profesionalen % 100 izango da, baldin eta Udalak kudeatzen duen poltsaren bidez egiten bada. Poltsa horretan sartzen dira Surbisak egindako prestakuntza-ikastaro bat gainditzen duten profesionalak. Horrela, kudeaketa erraztuko zaie jabeen erkidegoei.

Laguntza hori, gehienez, zortziehun eurokoa (800) izango da eraikineko.

Eraikinek atari bat edo sartzeko eskailera bat baino gehiago badituzte hainbat etxebizitzari zerbitzu emateko, atari edo eskailera bakoitza eraikin bat balitz bezala hartuko da dirulaguntza emateko orduan, 2. apartatuan ezarritako mugak betez.

8. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK

1. mota.- Egiturazko eraberritzeak: obraren benetako kostua.

2. mota.- Termitek kaltetutako eraikinak. Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- termiten aurkako tratamendua, enpresa espezializatu batek egindakoa.
- eraikinaren egituraren egoera zein den jakiteko obrak (katak irekitzea).
- egitura-elementuak, hala nola habeak, pilareak eta forjatuak eskoratzeko, konpontzeko edo/eta ordezkatzeko lanak.
- termitek kaltetutako zurezko eraikuntza-elementuak ordezteak eta eraikuntza-elementuak konpontzearen edo katak irekitzearen ondorioz akaberak ordezteko obrak egitea, jarduketa hori lehendik zeuden akaberen antzekoekin egiten bada.
- termitak daudelako presaz jardun beharra dagoenean, segurtasunagatik egin beharreko behin-behineko zurkaizteak ere sar daitezke, behar bezala justifikatzen badira txosten tekniko baten bidez.
- Finken administrazioko profesionalen ordainsariak.

Kasu bietan, hauek ere sartzen dira: obrarako emandako laguntza teknikoaren ordainsariak, diruz lagundu daitekeen jarduketagatik ordaindutako tasak, zergak eta beste prezio publiko batzuk, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren kostua ere, onuradunek zerga hori jasaten dutenean eta hirugarrenei jasanarazi ezin dietenean.

Jarduketaren barruan diruz laguntzekoak ez diren obrak aurreikusten badira, diruz lagundu daitekeen proiektuaren, zuzendaritzaren edo jarduketaren zatia baino ez da diruz lagunduko, eta, horretarako, aurrekontua/faktura aurkeztu beharko da, behar bezala banakatuta. Era berean, tasa, zerga eta prezio publikoei dagokienez, diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren kalkulua dirulaguntzaren xede diren obrak gauzatzeko aurrekontuaren arabera egingo da.

9. ARTIKULUA.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN OBREK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

1.- Deialdi honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak eskuratzeko, obrek udal-lizentzia edo baimena eduki beharko dute, hala behar bada, edo Udalak jabeen ordezkari gisa eginarazitako obrak izan beharko dira.

3.- Ezingo dituzte dirulaguntza hauek jaso ordainagiriak edo, ordainketa partzialen kasuan, amaierako likidazioak 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak dituzten obrak, aurreko atalean jasotakoak salbu.

10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioarteko erankudea.

2.- Nolanahi ere, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu diruz lagundutako jardunaren kostua, nahiz berak bakarrik, nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

11. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.- AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK: Laguntzak lortu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek obra amaitutakoan aurkeztu beharko dute eskabidea, eta honako agiri hauek erantsi beharko dituzte:

- a) **I. eranskina.** Erantzukizunpeko aitorpena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekurik ez izateari buruzkoa.
 - b) **I. eranskina.** Udalari nork bere borondatez emandako baimena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta edukitzeari buruzko datuak jasotzeko. I. eranskina.
 - c) **II. eranskina. «Hartzekodunen fitxa».** Bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta interesdunak lehenago Bilboko Udalaren inolako dirulaguntzarik jaso ez badu eta Hartzekodunen Erregistroan izena emanda ez badago. Eranskin hori behar bezala bete, eta honako hauek erantsi beharko zaizkio:
 - a. bankuko kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiria.
 - b. pertsona juridikoen kasuan, ordezkariaren NANaren eta ahalordearen kopia.
 - d) Ahalorde hori aurkeztu ezean, edo Udalak ezin badu eskuratu: **Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin** zorretan ez egotea egiaztatzen duten agiriak, administrazioek urte horretan egindakoak.
 - e) **Diruz lagun daitekeen jarduketa egin izanaren justifikazioa. Dirulaguntza eman aurretik aurkeztuko da, justifikazioko kontu moduan.** Diruz lagundutako jardueraren eta onuradunen ezaugarrien arabera, justifikazioko kontuak honako hauek edukiko ditu:
 - obra-amaieraren azken likidazioa, baldin eta obra motak hala eskatzen badu eta, betiere, likidazio hori Administrazio honetara lehenago aurkeztu ez bada.
 - termiten aurkako tratamenduaren, egindako obren edo jardunen, ordainsari teknikoaren eta finka-administrazioaren jatorrizko ordainagiriak.
- Agiri horiek kontzeptuka xehakaturik aurkeztu behar dira, halako moldez non berariaz geratuko den egiaztatuta dirulaguntzaren xede den aurrekontua.
- Jatorrizko dokumentuak, prozedura amaitu ondoren, interesdunari itzuliko zaizkio.
- Dirulaguntzaren ordainketa partziala eskatzen bada 7. artikulua 2.1 atalean ezarritakoaren arabera, ordainagiriak termiten kontrako tratamenduari eta eraikinaren egitura aztertzeke lanei buruzkoak izan beharko dira (katak irekitzea).
- f) Termiten kontrako tratamendua hainbat urtetan zehar eman beharra gertatuz gero, jabeen erkidegoaren konpromisoa aurkeztu beharko da, tratamendu horri epe horretan jarraipena emango zaiola adierazteko.

Eskabidea behar bezala beteta ez badago, edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bada, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan; eta ohartaraziko zaio hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela, bestelako izapiderik egin beharrik gabe.

12. ARTIKULUA. ESKABIDEAK. Aurkezteko modua eta epeak

1.- Eskaerak honela aurkeztu ahalko dira:

- **EGOITZA ELEKTRONIKOAn**, Udalaren webgunearen bidez. (**Jabeen erkidegoen kasuan, erkidegoaren IFK agertu behar da eskatzailearen IFK gisa.**)
- **Udal bulegoetan, HITZORDUA ESKATUTA:**
 - Hiri Plangintzako Saileko Erregistroa (San Agustin eraikina - Ernesto Erkoreka plaza 12).
 - Barrutietako udaltegietako erregistroetan.

Halaber, eskabideak bidali ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein sistemaren bidez.

3.- EPEA: Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta 2023ko azaroaren 13an amaituko da. Informazio hori Udalaren webgunean ere egongo da eskura (www.bilbao.eus/Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila).

13. ARTIKULUA. IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzen deialdi honetara bideratutako aurrekontu-kreditua banatuko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsona edo entitateen artean, 7. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera eta aurrekontu-zuzkidura agortu arte.

Dirulaguntza-eskaerak aurkezte-dataren hurrenkeran ebatziko dira.

2.- Deialdi honen barruan sartzen dira, halaber, deialdiaren aurretik aurkeztu eta oraindik ebatzi barik dauden eskabideak. Horien kasuan, ez da beharrezkoa izango eskabidea berriro egitea.

3.- Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Sailaren Aurrekontu, Kontratazio eta Informatizazio Sekzioa izango da prozedura izapidetzeko organo eskuduna. Hark egingo du ebazpen-prozedura, honako hauek egiaztatu eta gero:

- Udal ikuskaritzak txostena egin duela eta, bertan, adierazi duela diruz lagun daitezkeen obrak behar bezala egin direla.
- Onuradunak Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren txostena aurkeztu duela.
- Onuradunak ez daukala zorrik zergaren alorrean eta Gizarte Segurantzari, eta ez duela zerga edo zehapenen zorrik Udalarekin derrigorrezko aldiaren (salbu eta horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo betearazpena geldiarazita badago).

4.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik hasita, eta deialdiaren laburpena argitaratu eta gero.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsua jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegietatik egoki den hartan, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

5.- Izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

14. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saileko Ordezkaritzak esleitutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena emango du. Onuradunari ebazpen hori jakinaraziko zaio, eta Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean dagoen banku-kontuan ordainduko da.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Emandako dirulaguntza guztiak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta udalaren webgunean argitaratuko dira.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 30ean

Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BORONDATEZKO BAIMENA

Ordezkarien datu pertsonalak	
Datos de la persona representante	
Izen-abizenak Nombre y apellidos	
NAN edo IFZ DNI o NIF	

Jabeen elkartearen datuak (utzi bete gabe, ordezkaria ez bada Jabeen elkarte baten izenean ari)	
Datos de la Comunidad propietaria (dejar en blanco, si no representa a ninguna Comunidad)	
Jabeen elkartearen izena Nombre de la Comunidad	
IFZ NIF	

- **AITORTZEN DUT** diru-laguntza jasoko duen pertsona fisikoa edo juridikoa ez dagoela sartuta Diru-laguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan adierazitako debekuetako batean ere.
- Udalak egiaztatuko du Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ez daukala zorrik, eta Udalaren edo beste Administrazio baten esku dagoen eta eskabide hau izapedetzeko beharrezkoa den informazioa lortuko du.

EZ badu baimena ematen, sinatzen duenak hurrengo egin beharko du:

- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak eta beste beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko ditu
- eta hurrengo laukia bete:

☐ **EZ DUT BAIMENA EMATEN OGASUN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRETAN EGUNERATUTA EGOTEKO ZIURTAGIRIAK LORTZEKO, ezta Udalaren edo beste Administrazio baten eskuetan dagoen dokumentuak edo informazioa ere.**
- **DECLARO** que la persona física o jurídica destinataria de la ayuda no se encuentra incurso en ninguna de las prohibiciones que recoge el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.
- El Ayuntamiento verificará que está al corriente del pago de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y recabará toda la información que está en poder del Ayuntamiento y otra Administración que sea necesaria para tramitar la solicitud.

Si NO lo autoriza deberá:

- -aportar los certificados de Hacienda Foral y de la Tesorería General de la Seguridad Social así como el resto de documentación necesaria.
- -y marcar la siguiente casilla:

☐ **NO AUTORIZO A CONSEGUIR LOS CERTIFICADOS DE ESTAR AL CORRIENTE DEL PAGO DE SUS OBLIGACIONES FISCALES Y DE SEGURIDAD SOCIAL, así como el resto de documentación e información necesaria que está en poder de Ayuntamiento u otra Administración.**

Bilbao, 20__ ko _____ ren ____ (e)an Bilbao, ____ de _____ de 20__ Sinadura / Firma:

II. ERANSKINA

HARTZEKODUNEN FITXA / FICHA ACREEDORES/AS

Kontuhartzailletza Nagusiaren Zerbitzua / Servicio de Intervención General

IFZ- IFK-Pasaportea/NIF-CIF-Pasaporte Haga clic aquí para escribir texto.	Izen-abizenak-Izen soziala/Nombre y Apellidos – Denominación Social Haga clic aquí para escribir texto.		
Lokalizazio-datuak (herrialdea-egoki bada-, probintzia, udalerria, kalea, blokea, ataria, solairua eta aldea) Datos Localización (País – en su caso-, provincia, municipio, calle, bloque, portal, piso y mano) Haga clic aquí para escribir texto.			
Posta-kodea /Código Postal Haga clic aquí para escribir texto.	1. telefonoa /Teléfono 1 Haga clic aquí para escribir texto.	2. telefonoa /Teléfono 2 Haga clic aquí para escribir texto.	Helbide elektronikoa/E-mail Haga clic aquí para escribir texto.
EJZko epigrafea / Epígrafe I.A.E. Haga clic aquí para escribir texto.	Profesionalak-Artistak: Jarduera hasi den eguna / Profesionales – Artistas: Fecha inicio actividad Haga clic aquí para escribir texto.		
Bankuko datuak / Datos Bancarios IBAN Haga clic aquí para escribir texto.			SWIFT (BIC) Haga clic aquí para escribir texto.

DATA / FECHA: Haga clic aquí para escribir una fecha.

SINADURA / FIRMA:

(Izena eta abizen bi)/

(Nombre y dos apellidos) Haga clic aquí para escribir texto.

Kargua / Cargo: Haga clic aquí para escribir texto.

Fitxa hau **pertsona baimendu** batek bete eta **sinatu** behar du eta **agiri hauek** aurkeztu behar ditu:

- **IFZ/IFK/Pasaportearen** kopia.
- Pertsona juridikoak direnean, **NANaren kopia** eta ordezkariaren **ahalak**.
- **Jarduera Ekonomikoen Zergan alta egin izanaren ziurtagiria** (faktura Udalari egingo bazaio).
- **Bankuko kontuaren titulartasunaren ziurtagiria**, edo, halakorik ezean, titulartasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Fitxa eta eskatutako agiriak izango dira oinarria hartzekodun horri HARTZEKODUNEN UDAL ERREGISTROAN alta emateko, eta helbide honetan aurkeztu daiteke:

BILBOKO UDALA
KONTABILITATEA
Venezuela plaza 2- 2. solairua
48001 BILBAO
Tel.: **94 420 46 89**

Helbide elektronikoa: **contabilidad@bilbao.eus**

Bide hori erabil daiteke erregistroan jasotako datuok ikusteko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideaz baliatzeko.

Esta ficha debe ser cumplimentada y **firmada** por **persona autorizada** y debe acompañarse de la siguiente **documentación**:

- Copia de **CIF/NIF/Pasaporte**
- En el caso de personas jurídicas copia del **DNI y poderes** de su representante
- **Certificado alta Impuesto de Actividades Económicas** (si se va a emitir factura al Ayuntamiento)
- **Certificado de la titularidad de la cuenta bancaria** o, en su defecto, cualquier otro documento que acredite la titularidad de la misma

La ficha, junto con la documentación requerida, constituirá el soporte documental en base al cual se dará de alta al acreedor/a en el **REGISTRO MUNICIPAL DE ACREEDORES/AS** y puede entregarse en la siguiente dirección:

AYUNTAMIENTO DE BILBAO
CONTABILIDAD
Plaza Venezuela, 2- 2ª planta
48001 BILBAO
Tfno: **94 420 46 89**

Email: **contabilidad@bilbao.eus**

Por el mismo medio puede ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición sobre los datos personales incluidos en el citado registro